



### III. ERANSKINA MEMORIA TEKNIKOA

#### **Kultura bizkortzaileei laguntzeko dirulaguntzen deialdia, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan, 2022-2023 ekitaldirako.**

Memoria teknikoa aurkeztean, deialdiaren oinarrien 6.4 ataleko epigrafeak garatu behar dira. Hain zuzen ere, hauxe diote:

##### **c.1) Kultura bizkortzeko proiektua, behar bezala zehaztua:**

- Kulturaren eta sormenaren industrien zein esparrutan ari den lantzen eta inplementatzen kulturaren bizkortzea. Justifikatu behar da kulturaren eta sormenaren industrien arloan izan dezakeen garrantzia (Nafarroako Foru Komunitateari gehitzen dion balioa, ibilbidea, asoziazionismoa, Europako beste proiektu batzuetan parte hartzea eta interesgarritzat jotzen den gainerako informazio guztia).
- Helburu estrategikoak eta operatiboak, misioa (zein den abiapuntua) eta ikuspegia (zer lortu nahi den kultura bizkortzearen prozesuan), posizionamendua, originaltasuna, berezitasuna eta proiektuaren izaera berritzailea.
- Komunikazioaren, nazioartekotzearen edo finantzaketaren arloko prestakuntza, laguntza, bitartekaritza, inkubazio edo mentoretza programetarako kronograma zehatza.
- Prestakuntzaren, bitartekaritzaren, inkubazioaren edo mentoretzaren tipologia: edukiak, dinamikak eta erakundeak 2002ko urtarrilaren 1etik deialdi honetara eskaera aurkeztu arte jaso duen laguntzari buruzko edozein informazio, edo erakundeak deialdia bukatu arte jasoko duena, baldin eta helburu badira komunikazioaren, nazioartekotzearen edo finantzaketaren arloko bizkortze prozesuak.
- Kultura bizkortzeko prozesuetan erakundeak 2022ko urtarrilaren 1a baino lehen inplementatutako lanak. 2022ko urtarrilaren 1a baino lehen egindako kultura bizkortzeko programetan izandako parte hartzea eta sartutako hobekuntzak (adierazleen bidez zehaztuko da zein diren).
- Erakundearen bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa eta antolamenduzkoa; erakundearen kaudimen teknikoa eta antolamenduzkoa, kultura bizkortzeko proiektuaren esparruan.
- Zabalkunde plana: atal honetan, proiektuaren sustapena, komunikazioa eta publizitatea egiteko jarduerak zehaztu behar dira.
- Kultura bizkortzeko prozesuetan/beste eremu batzuekiko sinergietan parte hartzeko plana. Baloratuko da prestakuntza, bitartekaritza, inkubazioa edo mentoretza Nafarroako Foru Komunitateko kultura eta sormen industrien beste erakunde batzuekin partekatua izatea, eta kultura bizkortzeko prozesuetan ezagutza partekaturako sarbidea erraztea.



- Neurketa eta ebaluazio tresnak, ahalbidetzen dutenak baloratzea erakundeak kultura bizkortzeko izandako prozesua eta sartutako hobekuntzak, eta neurtzea proiektuak hainbat arlotan izandako eragina: kulturean, lurraldean, ekonomian, ingurumenaren jasagarritasunean, 2030 Agendan edo beste erakunde batzuekin/sinergiak partaidetza prozesuetan.

**c.2) Dokumentu bat, non zehazten baita zein den erakundeak, kulturalki bizkortu dadin, hiru arlo hauetan egin beharreko inbertsioa: digitalizazioa, eraldaketa digitala eta teknologia berrien aplikazioa. Hala, dokumentua izanen da inbertsio proposamen horren memoria teknikoa: adierazi behar du zein diren jarduera eremuak (kudeaketa digitala, ingurumenekoa, tresnak, Big Data, etab.); eta zerrenda batean jaso behar du zein diren hobekuntzak, lortu beharreko helburuak, erabili beharreko sistemak eta dagokien garapena, betiere kontuan hartuta deialdi honen esparruan diruz lagundutako jarduerak gauzatzeko epea.**